

PRENTSA OHARRA

2019ko ekonomia balantzea bukatuta, aurtengo gastuen eta inbertsioen berrantolaketari ekin dio Oñatiko Udalak

1.17 milioi euro baino gehiago erabiliko lirateke jadanik adosturik zeuden partidak igotzeko eta berriak sortzeko. Gainera, kiroldegiko maileguaren amortizazioa urtebete aurreratuko da, aurrekontuetara 800.000 euroko partida bideratuta

2019ko ekonomia balantzea bukatuta, 2020ko gastuak eta inbertsioak berrantolatzeari ekin dio Oñatiko Udalak: iazko inbertsioetako dirua txertatuko du 2020ko aurrekontuetan, zenbait diru partida igo ditu eta partida berriak sortu. Hain zuzen ere, **13 milioi euroko gerakina izan zen 2019an**. Bada, 8,5 milioi euro txertatuko dira aurtengo aurrekontuetako inbertsioetan martxan dauden proiektuetarako: hor daude kiroldegia, natur eskolaren eraberritzea eta Araatzeko ostatuaren egitasmoa. Eta, horrez gain, ia **1,2 milioi euro erabiliko dira 2020ko aurrekontuetan adosturiko partidak igotzeko edo berriak sortzeko**. Bestetik, aipatu beharrekoa da urtebete aurreratuko dela kiroldegiko maileguaren amortizazioa, aurrekontuetara 800.000 euroko partida bideratuta. Horretan geratu barik, udalak **2,5 milioi inguruko poltsa sortu du etorkizunean sor litezkeen inbertsio beharrak asetzeko**.

Izaro Elorza Oñatiko Alkatearen esanetan, “arduraz” landu da gaia: “Otsailean ezagutu genuen 2019ko ekitaldiko behin betiko ekonomia balantzea, baina ordurako lanean hasiak ginen, aurreikusten baikenuen 2019ak gerakin positiboak utziko lituzkeela. Ordurako, hasiak ginen aukera berriak aztertzen, kontraste lanetan, proiektu berrietarako aurrekontuak eskatzen, hausnartzen... Inolaz ere ezin ginen arduragabekeria erori. Ezin dugu ahaztu, esaterako, bete betean sarturik gaudela Zubikoa kiroldegiko obretan. Tartean, 2,5 milioi euroko poltsa sortu dugu etorkizuneko inbertsioetarako, **Olaiturrirako edota martxan diren bestelako obretan sor litezkeen hobekuntza proposamen berrietarako, kasurako”**.

Besteak beste, alor guztiak kontuan izanik, **etorkizuneko urratsak emateko baliagarri izan daitezkeen azterketak egiteko diru partidak sortu ditu Oñatiko Udalak**. Hor daude hirigintza proiektuen azterketa; edota ekonomia sozial eraldatzailearen bueltako egitasmoen -10.000 euroko partida dago- zein laneratze eta gizarteratze beharren azterketak -12.000 euro bideratuko lirateke-. Horrez gain, **energia berriztagarrien bidean urratsak ematen segitzeko asmoa berretsi du udalak**: 50.000 euroko partida sortu du horretarako. Bestetik, gardentasun estrategia lantzeari -10.000 euro ditu- ekin dio, eta partida berriak sortu ditu danborradako materialarendako (12.000 euro), Oñatzen 50. urteurrenari loturikoendako (14.000 euro), azpiegitura teknologikoen hedapenerako (50.000 euro) eta desfibrilagailu berriak jartzeko (10.000 euro).

Ostera, herriko azpiegiturak hobetzen ere jarraituko du udalak. Besteak beste, **Azkoagain futbol zelaiaren birgaitzeri loturiko partida handitu du**. Zehatz esanda, 64.000 euro egongo dira eraikin zaharra bota eta aldagela modularrak jartzeko. Eta jubilatuen etxea, Gaztelekua edota Eltzia hobetzen segitzeko diru partidak ere handitu ditu. Gainera, **2020ko aurrekontuetan adostutakoa baino diru gehiago izango da auzoetako inbertsioetarako**. Hain zuzen ere, 30.000 euro gehiago egongo dira gisakoetarako. Gainera, aipatu beharrekoa da 55.000 euroko diru partida sortu dela Santxolopetegi auzoan bidegorria egiteko.

Gauzak horrela, **Oñatiko alkatea “gustura” azaldu da egindakoarekin**: “Esan daiteke proposamen landua eta osoa daukagula esku artean, 2020ko aurrekontuak nabarmenki hobetu direla 2019ko ekitaldiko gerakinekin. Hainbat astez horretan buru belarri jardun dugu guztiok, zinegotziek eta neuk. Finean, alor bat ere ezin zitezkeen bazterrean geratu. Eta lortu dugulakoan nago. Gustura nago egindakoarekin”.